

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

#### Presidentziaren dedikazio partziala eta ordaindua eta batzarkideen dietak

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua-rekin eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32. artikulua-rekin bat etorriz, argitara ematen da kuadrillako batzarraren 2023ko azaroaren 2ko ohiko bilkuran zehaztu zen korporazioko kideen ordainsarien eta kalte-ordainen zehaztapena. Bilkura horretan, honako erabaki hau hartu zen:

Lehenengoa. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz erakunde honetako presidentearen lansari- eta dedikazio-araubidea onartzea, honela:

Ehuneko 50eko dedikazio partziala.

Urteko zenbatekoa: 18.807,13 euro.

Aurreko kopurua urte naturalari dagokio.

Ordainsariak 12 ordainsaritan ordainduko dira.

Dedikazio horrek Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta ematea ekarriko du, eta kuadrillak bere gain hartu beharko ditu dagozkion enpresa-kuotak.

Bigarrena. Kuadrillako batzarkideentzako dieta hauek onartzea:

– Kuadrillaren ordezkari instituzional gisa edozein batzarkidek osoko bilkuran, batzordean edo bileran parte hartzea: 50 euro gehi kilometrajea ordezkatzeko duen udalerriko udaletxetik.

– Kilometroak: 0,29 euro kilometroko.

Hirugarrena. Iragarkia ALHAOn eta web-orrian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezun, 2023ko azaroaren 6an

*Presidentea*

**EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ**